



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



KONTINGENTZIA PLANA COVID-19 (KORONABIRUSA) DELA ETA 2. ber.





AURKIBIDEA:

1.	Sarrera.....	3
2.	Aurrez ikus daitezkeen egoerak.....	3
3.	Segurtasun- eta osasun-protokoloa.....	3
	3.A. Aholku orokorrak.....	4
	3.B. Aholku bereziak.....	4
	Arrisku handiko egoera pertsonalak zehaztea.....	5
	3.D. Informazioa eta kontzientziarioa.....	5
	Kontratistekin jardura prebentiboak koordinatzea.....	6
	Jardura-protokoloa, sintomak nabaritzuz gero.....	6
4.	Komunikazioa.....	6
5.	Plana zuzentzea eta koordinatzea.....	6
6.	COVID-19ren eboluzio-hipotesien aurreko Ekintza Plana	7
	Laguntzeko arlo kritikoak zehaztea.....	9
	Prozesu komertzial eta finantzarioko arlo bereziak zehaztea	9
	Interes-taldea (IT) eta eboluzio-egoera posibleak (EEP) definitzea.....	9
7.	Sentsibilizazio-kanpaina orokorra.....	10
	7.A. E1: irizpide orokorrak.....	11
	7.B. E1: irizpide bereziak, prozesuka.....	11
	7.C. E2: irizpide orokorrak	13
	7.D. E2: irizpide bereziak, prozesuka.....	14
	7.E. E3: irizpide bereziak, prozesuka.....	16
	7.F. E4: irizpide bereziak, prozesuka.....	19
	7.G. Horniketa-katearen segimendua.....	21
	7.H. Beste ohar batzuk.....	22
8.	Eranskinak.....	23



1.Sarrera

COVID-19 gaixotasuna koronabirus-mota berri batek eragiten du. Koronabirus-mota berri horrek pertsoneri erasan diezaieke eta 2019ko abenduan atzeman zuten lehen aldiz, Txinako Hubei probintziako Wuhan hirian.

Inkubazio-aldiak 2 eta 14 egun bitartean irauten du eta sintoma arruntenak dira sukarra, eztul handia eta, batzuetan, aire-faltaren sentrazioa. Infekzioa asintomatikoa izaten da haurretan; izatekotan, sintoma arinak izaten dira. Kasurik larrienak gertatzen dira adineko pertsonen edo beste gaixotasunen bat duten pertsonen artean (gaixotasun horiek dira gaixotasun kronikoak, bihotzeko edo biriketako gaixotasunaketa immunitate-arazoak).

Osasun Ministerioak adierazi du enpresek kontingentzia-planak prestatu behar dituztela, krisiak irauten duen denboran normaltasunez funtzionatuko dutela ziurtatzeko.

2.Aurrez ikus daitezkeen egoerak

Egoerak izango dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osasun Ministerioak ezarritako alerta-mailen arabekoak; bertsio hau idazterakoan "hedapena geldiarazteko" egoeran gaude. Gipuzkoako Ur Kontsortzioan dauden udalerriak ez daude arrisku bereziko zonetan.

Kontingentzia Plan honen bidez, aurrez ikus daitezkeen egoera hauei erantzungo diegu:

- E1. Gaur egungo egoera.
- E2. Kasuak hedatuta Gipuzkoako Ur Kontsortzioko udalerrietan.
- E3. Kasuak Gipuzkoako Ur Kontsortzioko P2 interes-taldeko pertsonen artean (lanpostu kritikoetan ari ez diren langileak).
- E4. Kasuak Gipuzkoako Ur Kontsortzioko P1 interes-taldeko pertsonen artean (lanpostu kritikoetan ari diren langileak).

3.Seguratasun- eta osasun-protokoloa

Prebentziozko neurri hauek irizpide teknikoen arabera hartu ditugu, eta landu dituzte Laneko Arriskuen Prebentziokoek, Giza Baliabideetakoek eta oinarrizkotzat jotako prozesuetako arduradunek. Horiek Seguratasun eta Osasun Batzordeari jakinarazi dizkiete.

Neurri horiek guztiek bi helburu dituzte: gure enpresako langileen osasuna prebenitzea eta babestea, batetik; eta ematen dugun zerbitzu publikoa zaintzea, bestetik. Gipuzkoako Ur Kontsortzioko udalerrietan 340.000 biztanle baino gehiago hornitzen ditugu uraz, eta ura funtsezko eta nahitaezko baliabide bat da.



Neurriak eguneratzen joango gara, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osasun Ministerioak ematen dituzten jarraibideen arabera, eta, beraz, Plan hau berrikusi egingo dugu.

Barne-protokoloko jarduera-printzipioei jarraikiz, komunikazioa etengabea eta gardena izango da.

3.A Aholku orokorrak

Hauek dira norbera arnas gaixotasunetatik babesteko neurri orokorrak:

- Eskuak maiz garbitzea (uraz eta xaboiak edo alkoholdun likidoak), bereziki gaixoei edo haiek ibilitako inguruan egon eta gero.
- Eztula edo doministikua egiterakoan, ukondoa tolestuz ahoa eta sudurra estaltzea.
- Behin erabiltzeko musuzapiak erabiltzea eta, gero, botatzea.
- Beste pertsona batzuetatik gertu ez egotea (gutxienez BI metro ingurura).
- Begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzea, gaixotasuna eskuekin kutsatu daitekeelako.
- Ilearekin lepoaldean mototsa edo moñoa egitea.
- Azkazalak moztea eta zaintzea, eta apaingarririk ez erabiltzea (eraztunak, eskumuturrekoak, ordulariak).
- Lentillarik ez jartzea, betaurrekoak erabiltzea.
- Lantokiak egunero aireztatzea, dauden txanda adina.

3.B Aholku bereziak

- Informazioa gehiago zabalduko da, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN barnekanaletan kanpainak eginez. Helburua da ziurtatzea langileak datozen egunetan hartuko ditugun neurri prebentiboen jakinaren gainean jartzea.
- Kanpaina bereziak egitea jendearekin zuzenean aritzen diren langileek hartu behar dituzten neurri prebentiboen inguruan (langile horiek dira bezeroentzako arretan, kobratzen eta abar aritzen direnak).
- Lankideek ahalik eta bilera gutxien egitea eta, egin behar izanez gero, telefonoz eta bideo-dei, tele-bilera eta abarren bitartez egitea. Bilerak egitea nahitaezkoa bada, ahalik eta langile gutxien elkartzeari.
- Derrigorrezkoa da Osasun Ministerioak zerrendatutako arrisku-eremuetara bidaiatu dutenek edo diagnostikatutako pertsonekin egon direnek Prebentzio Zerbitzuari horren berri ematea berehala.
- Hegazkinez eta trenez ahalik eta bidaia korporatibo gutxien egitea. Bidaia horiek banan-banan aztertuko dira eta Zuzendaritzak baimendu beharko ditu.
- Gure instalazioetan jendea biltzen duten jarduera kolektibo ahalik eta gutxien egitea (jardunaldiak, hitzaldiak eta abar). Horiek ere baloratu egingo dira eta Zuzendaritzak baimendu beharko ditu.
- Ahalik eta kanpoko bisita gutxien hartzea (ingurumen-hezkuntzakoak, bisita kultural eta



teknikoak eta abar).

- Eraikinak gomendaturiko produktu espezifikoekin garbitzea:
 - Langileak txandaka eta ekipamendu informatiko berarekin aritzen diren lekuak txanda aldatzen den guztietan garbitzea.
- Txanda aldatzen den guztietan aldagelak eta guztientzako eremuak garbitzea:
 - Bezeroentzako arreta-eremuak lansaioaren erdian eta lansaioaren amaieran garbitzea.
 - Guztientzako eremuak eta jende asko ibiltzen den eremuak garbitzea eta desinfektatzea (bilera-aretoak, eskubandak, ateetako heldulekuak).
 - Bezeroentzako arreta-eremuak birusa indargabetzen duten produktu espezifikoekin garbitzea.
- Ibilgailuak garbitzea:
 - GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren ibilgailuetan desinfektatzaileak jartzea (soluzio hidroalkoholikoa, soluzio kloratua), bolantea, abiadura-palanka eta eskulekuak garbitzeko.
 - GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren ibilgailuek honako hauek eduki ditzaten ziurtatzea: xaboia, ura eta erabili eta botatzeko papera.
 - GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren ibilgailuetan, bolantea eta abiadura-palanka film paperarekin babestea; txanda aldatzen denean paper hori kendu, babestutako elementuak desinfektatu eta paper berria jarriko da.

3.C Arrisku handiko egoera pertsonalak zehaztea

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAn bereziki sentikorrek diren langileak identifikatuko dira. Langile horiekin eskuen higiearen eta arnasketaren inguruko neurri prebentiboak zorrotzuko dira. Hori, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osasun Ministerioak neurri bereziak ez dituzten jarri.

Pertsona bereziki sentikorrek dira aurreko patologien, hartzen dituzten botiken edo immunitate-nahasmenduen ondorioz edo haurdun daudelako ezaugarri pertsonal eta egoera biologiko bereziak dituztenak eta, ondorioz, arrisku gehiago dutenak. Pertsona horien esposizioa, beraz, eragotzi egin behar da, osasun-langileak izan ala ez.

3.D Informazioa eta kontzientziakoa

Zabalkunde-kanpainak egingo dira, langileei aditzera emateko COVID-19k zer arrisku dituen eta kutsatzetik babesteko zer neurri prebentibo hartu behar diren.

Kanpainen edukia hau izango da:

- Informazio-kartelak pantaila elektronikoetan eta paperean.
- Hartutako neurrien berri emateko mezu elektronikoak.
- Osasun Ministerioak eta Osakidetza gaiari buruz argitaratutako informazioa.
- Bisitarietzako informazioa.



3.E Kontralistekin jarduera prebentiboak koordinatzea

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOArekin lan egiten duten enpresak gure ekoizpen-zikloan funtsezkoak dira. Horregatik, erakundeak hartzen dituen neurrien berri emango diegu eta, halaber, eskatuko diegu azal diezaguten beren langileekin zer neurri hartu dituzten.

Plan hau garatzeko kritikotzat jotzen diren hornitzaileak ikuskatzeko neurriak hartuko ditugu, egiaztatzeko arauak behar bezala betetzen dituztela.

3.F Jarduera-protokoloa, sintomak nabaritzuz gero

Langileren batek arnas infekzio akutuarekin bat datozen sintomak baditu, hala nola sukarra, eztula edo bat-bateko arnas zailtasuna, eta/edo arrisku-eremuren batean egon bada, aholkua da dagokizun osasun-zentroarekin harremanetan jartzea.

Jasotzen dituen jarraibideak direla eta langileak ezin badu lantokira joan, arduradunari jakinarazi behar dio.

Antolaketa-buruek berrogeialdian dauden langileei buruzko informazio hau eman behar dute: izen-abizenak, NAN, dagokion instalazioa, bajako agiriaren kopia, baja hasitako eguna eta berrogeialdian egoteko arrazoia.

4. Komunikazioa

Sortzen zaizkizuen kontsultak honela bideratu ditzakezue:

- Lantokiko prebentzioko ordezkariekin edo Segurtasun eta Osasun Batzordearekin hitz eginez; horiek Prebentzio Zerbitzuarekin izapidetuko dituzte.
- Bulego nagusira deituz eta Oscarrekin hitz eginez.

5. Plana zuzentzea eta koordinatzea

Kontingentzia Plan hau uneoro indarrean egon dadin eta planteatutako egoera guztietan gauzatzeko, ezinbestekoa da honako hauek elkarlanean ahal adinaaritu daitezen lortzea: enpresako ordezkariak, langileen ordezkariak, Laneko Arriskuen Prebentzioa, Giza Baliabideak eta Komunikazioa. Koordinazio-organoa Segurtasun eta Osasun Batzordea izango da; han eztabaidatuko dira gai guztiak eta Zuzendaritza jakinaren gainean jarriko da.

6. COVID-19ren eboluzio-hipotesien aurreko Ekintza Plana

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK Uraren Ziklo Osoa kudeatzen du. Ziklo horretan sartzen dira ura biltzeko, hurbiltzeko, tratatzeko eta banatzeko prozesuak, estolderiaren kudeaketa,



arazketa eta kalitatearen kontrola. Horrez gain, zikloak hainbat laguntza-prozesu barne hartzen ditu, zerbitzu publiko eraginkor eta kalitatezkoa eman ahal izatea ziurtatzen dutenak.

COVID-19 izeneko gaixotasunaren hedapenaren eboluzio-hipotesiak oinarritzat hartuta ekintza-planak egiteko, nahitaezkoa da zerbitzuaren funtsezko prozesuak eta postu kritikoak zeintzuk diren zehaztea. Prozesu eta postu horiek honela daude definituta:

Funtsezko prozesuak: zerbitzua ematen jarraitu ahal izatearekin eta zerbitzuaren kalitatearekin zerikusi zuzena duten prozesuak.

Postu kritikoak: zereginak direla eta, lana erabat presentziala izatea eskatzen duten lanpostuak. Postu kritiko batzuetan, langileak, teknologia medio, urrunetik aritu daitezke. Dena den, hori muturreko konponbidetzat hartuko dugu, zerbitzuaren prestazioari kalte egiten diolako.

Zer postu kritiko dauden zehaztu ondoren, postu horietako langileekin honako hauek egin beharko ditugu:

- Kolektiboa sentsibilizatzeko plan berezi bat, prebentzio-kontuen ingurukoa.
- Postu horietan aritzen diren langileek Osakidetza jakinaren gainean jarri behar dute, baldin eta:
 - ✓ Arnas sintomak badituzte (sukarra, eztula eta airea falta zaielako sentazioa).
 - ✓ Duela gutxi (azken 14 egunetan) arrisku-eremuren batean egon badira.
 - ✓ Kutsatuta dagoela egiaztatutako pertsona batekin harreman estua izan badute.
- Segimendu-plana (egunero).
- Babes-ekipamendu bereziak ematea.
- Funtsezko prozesuak eta dagozkien postu kritikoak identifikatzea.

Bilketa, hurbilketa eta tratamendua

- Edateko Uren Araztegia (EUA) eta presa ustiatzea.
 - Arduraduna.
 - Lantegiko operadoreak (ofizialak).
 - Kontrol eta Zaintza Zentroko operadoreak.

Kalitate-kontrola

- Laborategia. Analisiak egiten jarraitzea, zerbitzua kalitatezkoa dela ziurtatzeko, legezko betekizunen arabera (ohiz kanpoko laginketak).
 - Lagin-hartzaileak.
 - Analistak.
 - Uraren Kalitate Kontroleko eta Laborategiko burua.
 - Uraren Kalitate Kontroleko eta Laborategiko arduraduna.

Sareen ustiaketa eta mantentze-lana





- Hornikuntzako esku-hartzeak: zerbitzuari eusteko ezinbesteko jardueretan (presazko konponketak, ezustekoak eta hipokloritoa berritzea).
 - Arduraduna.
 - Sareetako operadorea (ofizialak).
- Saneamenduko esku-hartzeak: zerbitzuari eusteko ezinbesteko jardueretan (presazko konponketak eta ezustekoak).
 - Arduraduna.
 - Sareetako operadorea (ofizialak).

Arazketa eta lohiaren kudeaketa

- Hondakin-urak araztea eta lohiak tratatzea.
 - Ustiaketa.
 - Hondakin-uren ponpatze-estazioetako mantentze-lan zuzentzailea eta arreta.
 - Laborategia.
 - Kontrol eta Zaintza Zentroko operadoreak.
- Lohia kudeatzea.
 - Ikusapena.
 - Hondakin-uren araztegi-tako arazte-prozesuetako lohia garraiatzea/zentralizatzea.
 - Garraiatzea eta konpostatzea: azpikontrataturatuta dago.
- Isuriak kontrolatzea.
 - Isuriak kontrolatzea. Gutxieneko laginketak egiten jarraitzea, isuriak arautzen dituen erregelamendua betetzeko.
 - Bi lagin-hartzaile.
 - Isuriak kontrolatzeko arduradun bat.

Osasuna zaintzea

- Osasuna Zaintzeko Zerbitzua, IMQ.

Garbiketa

- Lantokietan garbiketa-zerbitzuaz arduratzen diren langile-taldeak (LTO) indartzea, garbiketarako garrantzi handia duelakogaixotasuna ez zabaltzeko.

6.A Laguntzeko arlo kritikoak zehaztea

Informazio-sistemen eta IKT azpiegituren kudeaketa:

- Ekipamendu informatikoa.
- Komunikatzeko baliabideak.
- Interneten banda-zabalera.



Komunikazio korporatiboa eta kanpo-ordezkaritza:

- Barne- eta kanpo-komunikazioa kudeatzea, Planaren segimenduari eta gertatzen diren intzidentziei dagokienez.

6.B Prozesu komertzial eta finantzarioko arlo bereziak zehaztea

- Erabiltzaileentzako arreta.
- Irakurketak eta fakturazioa.
- Erosketak eta biltegiatzea.
- Legezko betekizunak betetzea.

6.C Interes-taldea (IT) eta eboluzio-egoera posibleak (EEP) definitzea

Egin dugun analisisan hiru interes-talde (IT) zehaztu ditugu, zeinek langile guztiak barne hartzen baitituzte:

- **P1.** Postu kritikoetako langileak.
 - P1.1: Lan erabat presentziala.
 - P1.2: Urruneko lana.
- **P2.** Postu kritikoetan ez dauden langileak.
 - P2.1: Arrisku txikiko esposizioa duten lanak (erabiltzaileen kudeatzaileak).
 - P2.2: Esposizio-probabilitate txikiko lanak (gainerakoak).
- **P3.** Patologiak dituzten langileak (kalteberak).

Horiez gain, gaixotasunaren laueboluzio-egoera posible zehaztu ditugu.

- **E1.** GAUR EGUNGO EGOERA.
- **E2.** KUDEATZEN DITUGUN UDALERRIETAN KASUAK ZABALTZEA.
- **E3.** GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAN KASUAK EGOTEA: P2 ETA/EDO P1 INTERES-TALDEETAKO LANGILEAK BERROGEIALDIAN.
- **E4.** GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAN KASUAK EGOTEA: P1 INTERES-TALDEKO LANGILEAK.

Interes-taldeak (langileak) eta zehaztutako hedapen-egoerak konbinatuz gero, egoera-matrize hau sortzen da:

	P1	P2	P3
E1	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa, sentsibilizazioa eta segimendua. • E1eko irizpide orokorrak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eta sentsibilizazioa. • E1eko irizpide orokorrak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eta sentsibilizazioa. • E1eko irizpide orokorrak.
E2	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa, sentsibilizazioa eta segimendua. • Lan-eremuak isolatzea, kontaktuan ez egotea. • E2ko irizpide orokorrak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eta sentsibilizazioa. • Erabiltzaileei arreta presentziala emateari uztea (P2.1). • E2ko irizpide orokorrak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eta sentsibilizazioa. • E2ko irizpide orokorrak.



E3	<ul style="list-style-type: none">Ahal izanez gero, sarbideak eta komunak bereiztea (P1.1).Telelana: ahal duten arduradunek eta ahal den lanpostuetan (P1.2).	<ul style="list-style-type: none">Telelana: arduradunek (P2.2).Goragoko mailako agindu baten ondorioz ezin bada, ez	<ul style="list-style-type: none">Telelana: arduradunek.Goragoko mailako agindu baten ondorioz ezin bada, ez bertaratzea.
E4	<ul style="list-style-type: none">Txandako ordutegia luzatzea(P1.1).Identifikatutako langileen hutsak eragindako lanpostuak lanpostu horietan esperientzia duten pertsonekin betetzea, aldi baterako (P1.1).	<ul style="list-style-type: none">Telelana: arduradunek (P2.2).Goragoko mailako agindu baten ondorioz ezin bada, ez bertaratzea (P2.2).	<ul style="list-style-type: none">Telelana: arduradunek. Ezin bada, ez bertaratzea.

(*) Egoera-matrize hau behar den guztietan aldatuko da, gaixotasuna nola hedatzen den, ezustekoren bat gertatzen bada edo administrazioek informazio garrantzitsua eguneratzen badute.

Orain, informazio- eta sentsibilizazio-prozesu etengabeari buruzko gaiak landuko ditugu.

7. Sentsibilizazio-kanpaina orokorra

Langileei astean behin jakitera ematea sintomak badituztezer egin behar duten. Helburua da arduraz jokatzeko eta lantokira ez joatea baldin eta:

- Arnas sintomak badituzte (sukarra, eztula eta airea falta zaielako sentsazioa).
- Duela gutxi (azken 14 egunetan) arrisku-eremuren batean egon badira.
- Kutsatuta dagoela egiaztatutako pertsona batekin harreman estua izan badute.

Orain, egoera-hipotesi bakoitzerako irizpide orokor eta bereziak azalduko ditugu zabal-zabal. Hipotesi horiek funtsezko prozesuen arduradunek egindako txostenetan daude landuta, eta txosten horiek agiri honi gehitu dizkiogu eranskin gisa.

7.A. E1: irizpide orokorrak

- Baliabide telematiko korporatiboak (ordenagailu eramangarria, tableta) dituzten langileek, lanaldia amaitzen dutenean, baliabide horiek eta dagozkien kargagailuak berekin eramatea, urrunetik lan egiteko neurriak hartu behar izanez gero lanerako prest egon daitezen.
- Gel-dosifikagailuak banatzea, komunetan eta bezeroentzako arreta-guneetan jartzeko.
- Erabiltzaileentzako arreta-gunean kartelak jartzea.
- Mahaiak gehiagotan garbitzea.
- Ahalik eta lan-bilera gutxien egitea, nola barne-bilerak hala kanpoko langileekin egin ohi direnak.
- Hitzartutako/programatutako kanpo-bisitak bertan behera uztea.
- Inork arrisku-eremuren batera bidaiatu badu, prebentzio-zerbitzuari jakinaraztea.
- Ahalik eta bidaiak korporatibo gutxien egitea.
- Ahalik eta jardunaldi eta hitzaldi gutxienetara joatea.
- Elkar agurtzean, elkar ez ukitzea (musuak eta eskua ez ematea).



7.B. E1: irizpide bereziak, prozesuka

Bilketa, hurbilketa eta tratamendua

- 6 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+3) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 5 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+2) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 3 ofizial dauden lantegiak:bi talde (2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu beharko da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren. EUAk ustiatzeko behar diren erreaktibo eta materialak biltzea.

Sareen ustiaketa eta mantentze-lana

Lantoki desberdinetako langileak kontaktuan ez egotea.Neurri nagusia da enpresako lantoki desberdinetako langileak kontaktuan egon daitezkeen jarduerak ez egiten saiatzea.

- Zona bakoitzean bi ofizial-talde antolatuko dira, elkarrekin kontakturik ez dutela.Otorduak bi taldeek ordu desberdinetan egingo dituzte eta, jan eta gero, jantokia desinfektatuko dute.Langileek ahalik eta kontaktu gutxien izango dute erabiltzaileekin.
- Mugikortasun geografikoa mugatuko da (aldi baterako edo behin betiko lekualdaketak bertan behera uztea eta abar).
- Lantoki desberdinetako pertsonak biltzen dituzten ahalik eta jarduera gutxien egingo dira (prestakuntza eta bilera presentzialak).

Arazketa eta lohiaren kudeaketa

- 6 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+3) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 5 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+2) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 3 ofizial dauden lantegiak:bi talde (2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu beharko da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.

HUAK ustiatzeko behar diren erreaktibo eta materialak biltzea.

Lohiak:garraiolariarekin ahalik eta kontaktu gutxien izatea.

Laborategia



Hiru txanda antolatzea; bi elkar gainjarri gabe, eta ordutegi bera dutenak leku desberdinetan (7+7+3).

Kanpoko laborategietako analistak dagozkien txandetan arituko dira, eta analisiak egiten dituen pertsonak eta lantegiko langileek ezingo dute kontaktuan egon.

Isuriak kontrolatzea

Txandei eutsiko zaie eta ezarritako gutxieneko distantziak zainduko dira.

Irakurgailuak

Erabiltzaileei gomendatzea kontagailuko datuak emateko ezkaratzean jarritako paperean idaztea, uraren telefonora deitzea edo gure webgunera jotzea. Gure langileak eta, orokorrean, biztanleak babesteko, kontagailuko datuak jasotzera joaten diren langileek eskuzorroak eta aurpegi-babesak jantziko dituzte.

Bateria-kontagailuak: normal irakurriko dira.

Etxebizitza barruan dauden kontagailuetako datuak jasotzeko honela jokatuko dugu:

1. Atari guztietan oharrak jarriko ditugu.
2. Oharretan datuak jarri ez dituzten etxeetan txirrina joko dugu. Irekitzen badigute, datuak telefonoz edo webgunearen bitartez emateko aukera eskainiko diegu (horretarako, zedula emango diegu).
3. Abonatuaren etxera sartuko gara, soilik, etxekoak esaten badigu kontagailua guk irakurtzea nahi duela. Horrelakoetan, segurtasun-tartea zainduko dugu.

Kontrol eta Zaintza Zentroa

Garbiketa-lana indartzea.

Beste mantentze-lan batzuk

Ofizial finko bana ardo erdi bakoitzeko. Ardo erdi bakoitzeko EUAn eta HUAN ofizial bera egongo da. Lana asteka antolatuko du: aste bat EUAn eta beste bat HUAN. Beregaina izango da eta ez da kontaktuan egongo instalazioetako langileekin.

Saneamendu-kamioia

Kamioietako bat ez da erabiliko. Bi gidariekin kamioi berean lan egingo dute, zonetako langileen laguntzaren beharrik gabe. Erabat beregainak izango dira eta gainerako langileek haiekin ahalik



eta kontaktu gutxien izango dute.

Jendeari arreta emateko bulegoak

Jendeari arreta emateko bulegoak aldi baterako itxiko dira, bertako langileek atea itxita lan egingo dute.

Bulego nagusiak: kontabilitatea, informatika, fakturazioa, merkataritza eta bulego teknikoak

Sail bakoitzean bina talde, gainjarri gabe; telelana eta bulegoko lan presentziala txandakatuko dituzte.

7.C. E2: irizpide orokorrak

- Lan-bilerak bertan behera uztea, nola barne-bilerak hala kanpoko langileekin egin ohi direnak.
- Bidaia korporatiboak bertan behera uztea.
- Jardunaldiak, hitzaldiak eta abar bertan behera uztea.
- Txanden/taldeen ordutegia malgutzen, aldagelak garbitzeko eta desinfektatzeko.
- Txanda bakoitzeko langileak irteten eta sartzen direnean, ibilgailuen barrualdea eta partekatzen den materiala (telefonoa, teklatura eta abar) garbitzea.
- Komeni denetan, enpresak telelanean aritzea aginduahal izango du, prebentzio-neurri gisa.
- Heziketa-ziklo guztietako praktikak bertan behera uztea, baita gainerako prestakuntza-jarduerak ere, hala barrukoak nola kanpokoak.

(*) Neurri hauetako batzuk E1 egoerara aurreratu daitezke.

7.D. E2: irizpide bereziak, prozesuka

Bilketa, hurbilketa eta tratamendua

- 6 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+3) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 5 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+2) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 3 ofizial dauden lantegiak: bi talde (2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu beharko da goizeko txandako langileak



zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.

EUAk ustiatzeko behar diren erreaktibo eta materialak biltzea.

Sareen ustiaketa eta mantentze-lana

Langileak kontaktuan ez egotea. Horretarako, neurri nagusia da langileak aldi eta leku berean elkarrekin ez egotea.

Sartzeko/irteteko ordua aurreratzea/atzeratzea.

Aldagelak eta ibilgailuak desinfektatzea.

Arazketa eta lohiaren kudeaketa

- 6 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+3) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 5 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+2) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 3 ofizial dauden lantegiak: bi talde (2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu beharko da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.

HUAK ustiatzeko behar diren erreaktibo eta materialak biltzea.

Lohiak: garraiolariarekin ahalik eta kontaktu gutxien izatea.

Honako hauek sakonago garbitzea: aldagelak, ibilgailuak, kanpoko langileak instalazioetara sartzeko ateak, komunikazio-sistema partekatuak, teklatuak...

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu beharko da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.

Laborategia

Hiru txanda antolatzea; bi elkar gainjarri gabe, eta ordutegi bera dutenak leku desberdinetan (7+7+3).

Kanpoko laborategietako analistak dagozkien txandetan arituko dira, eta analisiak egiten dituen pertsonak eta lantegiko langileek ezingo dute kontaktuan egon.



Isuriak kontrolatzea

Txandei eutsiko zaie, eta laborategiko langileekin ezingo da kontakturik izan. Laginak elkar ukitu gabe jaso eta entregatuko dira, eta laginketen aktak autosinatu egingo dira, kontakturik egon ez dadin.

Irakurgailuak

Erabiltzaileek, kontagailuko datuak emateko, nahitaezkoa dute ezkaratzean jarritako paperean idaztea, uraren telefonora deitzea edo gure webgunera jotzea. Gure langileak eta, orokorrean, biztanleak babesteko, kontagailuko datuak jasotzen dituzten langileek silikonazko eskuzorroak eta aurpegi-babesak jantziko dituzte.

Bateria-kontagailuak: normal irakurriko dira.

Etxebizitza barruan dauden kontagailuetako datuak jasotzeko honela jokatu dugu:

1. Atari guztietan oharrak jarriko ditugu.
2. Oharrean datuak jarri ez dituzten etxeetan, zedula ate azpian utziko dugu.

Kontrol eta Zaintza Zentroa

Garbiketa-lana indartzea.

Beste mantentze-lan batzuk

- Ofizial finko bana jarriko dugu arro erdi bakoitzeko.
- Desinfektatzeko eta garbitzeko lanak bakarrik egingo dira.
- Arro erdi bakoitzeko EUAn eta HUAN ofizial bera arituko da.

EUA: → astelehena/asteazkena eta ostirala.

HUA: → asteartea/osteguna.

- Beregaina izango da, eta harekin ahalik eta kontaktu gutxien izan beharko da.
- NBEa eta desinfektatzeko eta garbitzeko produktuak izan ditzan ziurtatu behar da.

Saneamendu-kamioia



Kamioietako bat ez da erabiliko. Bi gidariak kamioi berean lan egingo dute, zonetako langileen laguntzaren beharrik gabe. Erabat beregainak izango dira eta gainerako langileek haiekin ahalik eta kontaktu gutxien izango dute.

Jendeari arreta emateko bulegoak

Jendeari arreta emateko bulegoak aldi baterako itxiko dira. Bertako langileek atea itxita lan egingo dute etatelelanean aritzeko aukera izango dute.

Bulego nagusiak: kontabilitatea, informatika, fakturazioa, merkataritza eta bulego teknikoak

Sail bakoitzean bina talde, gainjarri gabe; telelana eta bulegoko lan presentziala txandakatuko dituzte.

7.E. E3: irizpide bereziak, prozesuak

Bilketa, hurbilketa eta tratamendua

- 6 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+3, 3+2 edo 2+2) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 5 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+2, 2+2 edo 2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 3 ofizial dauden lantegiak: talde bat + arduraduna + antolaketa-burua.

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu behar da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.

EUAk ustiatzeko behar diren errektibo eta materialak biltzea.

Sareen ustiaketa eta mantentze-lana

Langileak kontaktuan ez egotea. Horretarako, neurri nagusia da langileak aldi eta leku berean elkarrekin ez egotea.

Sartzeko/irteteko ordua aurreratzea/atzeratzea.

Aldagelak eta ibilgailuak desinfektatzea.

Zerbitzu berriak kontratatzea, larrialdia dela eta.



Arazketa eta lohiaren kudeaketa

- 6 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+3, 3+2 edo 2+2) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 5 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+2, 2+2 edo 2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.
- 3 ofizial dauden lantegiak:talde bat + arduraduna + antolaketa-burua.Lansaiola luzatu daiteke.Behar izanez gero, arduraduna eta antolaketa-burua partekatzea.

Bi taldeek ezingo dute bata bestearekin kontaktuan egon, ezta beste lantegietako langileekin ere (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu beharko da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.

HUAK ustiatzeko behar diren erreaktibo eta materialak biltzea.

Lohiak:garraiolariarekin ahalik eta kontaktu gutxien izatea.

Honako hauek sakonago garbitzea: aldagelak, ibilgailuak, kanpoko langileak instalazioetara sartzeko ateak, komunikazio-sistema partekatuak, teklatuak...

Laborategia

Hiru txanda antolatzea; bi elkar gainjarri gabe, eta ordutegi bera dutenak leku desberdinetan (7+6+3 edo 6+6+3).

Kanpoko laborategietako analistak dagozkien txandetan arituko dira, eta analisiak egiten dituen pertsonak eta lantegiko langileek ezingo dute kontaktuan egon.Langileren bat berrogeialdian jartzen badute, analisiak hura oporretan egongo balitz bezala egingo dira. Laginak taldeekin kontakturik izan gabe entregatuko dira eta beste instalazioetatik heltzen den materiala garbitu egingo da.

Isuriak kontrolatzea

Txandei eutsiko zaie, eta laborategiko langileekin ezingo da kontakturik izan.Laginak elkar ukitu gabe jaso eta entregatuko dira, eta laginketen aktak autosinatu egingo dira, kontakturik egon ez dadin.

Irakurgailuak

Erabiltzaileek, kontagailuko datuak emateko, nahitaezkoa dute ezkaratzean jarritako paperean idaztea, uraren telefonora deitzea edo gure webgunera jotzea.Gure langileak eta, orokorrean, biztanleak babesteko, kontagailuko datuak jasotzen dituzten langileek silikonazko eskuzorroak



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



eta aurpegi-babesak jantziko dituzte.

Bateria-kontagailuak: normal irakurriko dira.

Etxebizitza barruan dauden kontagailuetako datuak jasotzeko honela jokatuko dugu:

1. Atari guztietan oharrak jarriko ditugu.
2. Oharrean datuak jarri ez dituzten etxeetan, zedula ate azpian utziko dugu.

Azpikontratatu daiteke.

Kontrol eta Zaintza Zentroa

Garbiketa-lana indartzea. Telelanean aritzeko aukera.

Beste mantentze-lan batzuk

- Ofizial finko bana jarriko dugu arro erdi bakoitzeko.
- Desinfektatzeko eta garbitzeko lanak bakarrik egingo dira.
- Arro erdi bakoitzeko EUAn eta HUAN ofizial bera arituko da.

EUA: → astelehena/asteazkena eta ostirala.

HUA: → asteartea/osteguna.

- Beregaina izango da, eta harekin ahalik eta kontaktu gutxien izan beharko da.
- NBEa eta desinfektatzeko eta garbitzeko produktuak izan ditzan ziurtatu behar da.

Eginbeharrak gutxitu daitezke.

Azpikontratatu daiteke.

Saneamendu-kamioia

Kamioietako bat ez da erabiliko. Bi gidariak kamioi berean lan egingo dute, zonetako langileen laguntzaren beharrik gabe. Erabat beregainak izango dira eta gainerako langileek haiekin ahalik eta kontaktu gutxien izango dute.

Azpikontratatu daiteke.

Jendeari arreta emateko bulegoak



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



Jendeari arreta emateko bulegoak aldi baterako itxiko dira. Bertako langileek atea itxita lan egingo dute eta telelanean aritzeko aukera izango dute.

Bulego nagusiak: kontabilitatea, informatika, fakturazioa, merkataritza eta bulego teknikoak

Sail bakoitzean bina talde, gainjarri gabe; telelana eta bulegoko lan presentziala txandakatuko dituzte.

7.F. E4: irizpide bereziak, prozesuak

Bilketa, hurbilketa eta tratamendua

- 6 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+3, 3+2 edo 2+2) + arduraduna + antolaketa-burua. Txanda bakarra egiteko aukera egongo da, beste arro bateko arduradunaren eta antolaketa-buruaren laguntzarekin.
- 5 ofizial dauden lantegiak: bi talde (3+2, 2+2 edo 2+1) + arduraduna + antolaketa-burua. Txanda bakarra egiteko aukera egongo da, beste arro bateko arduradunaren eta antolaketa-buruaren laguntzarekin.
- 3 ofizial dauden lantegiak: talde bat + arduraduna + antolaketa-burua. Txanda bakarra egiteko aukera egongo da, beste arro bateko arduradunaren eta antolaketa-buruaren laguntzarekin.

Bulego teknikoko langileen laguntzarekin.

Sareen ustiaketa eta mantentze-lana

Gutxieneko zerbitzuak ematea, beste arro batzuetako langileen laguntzarekin.

Sartzeko/irteteko ordua aurreratzea/atzeratzea.

Aldagelak eta ibilgailuak desinfektatzea.

Zerbitzu berriak kontratatzea, larrialdia dela eta.

Arazketa eta lohiaren kudeaketa



- 6 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+3, 3+2 edo 2+2) + arduraduna + antolaketa-burua.Txanda bakarra egiteko aukera egongo da, beste arro bateko arduradunaren eta antolaketa-buruaren laguntzarekin.
- 5 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+2, 2+2 edo 2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.Txanda bakarra egiteko aukera egongo da, beste arro bateko arduradunaren eta antolaketa-buruaren laguntzarekin.
- 3 ofizial dauden lantegiak:talde bat + arduraduna + antolaketa-burua.Txanda bakarra egiteko aukera egongo da, beste arro bateko arduradunaren eta antolaketa-buruaren laguntzarekin.

Bulego teknikoko langileen laguntzarekin.

HUAK ustiatzeko behar diren errektibo eta materialak biltzea.

Lohiak:garraiolariarekin ahalik eta kontaktu gutxien izatea.

Honako hauek sakonago garbitzea: aldagelak, ibilgailuak, kanpoko langileak instalazioetara sartzeko ateak, komunikazio-sistema partekatuak, teklatuak.

Laborategia

Hiru txanda antolatzea; bi elkar gainjarri gabe, eta ordutegi bera dutenak leku desberdinetan (6+6+3, 7+3 edo 7+7).

Kanpoko laborategietako analistak dagozkien txandetan arituko dira, eta analisiak egiten dituen pertsonak eta lantegiko langileek ezingo dute kontaktuan egon.Langileren bat berrogeialdian jartzen badute, analisiak hura oportetan egongo balitz bezala egingo dira. Laginak taldeekin kontakturik izan gabe entregatuko dira eta beste instalazioetatik heltzen den materiala garbitu egingo da.

Analisiak kanpora atera daitezke.

Isuriak kontrolatzea

Txandei eutsiko zaie, eta laborategiko langileekin ezingo da kontakturik izan.Laginak elkar ukitu gabe jaso eta entregatuko dira, eta laginketen aktak autosinatu egingo dira, kontakturik egon ez dadin.Arduradunak telelanean aritu ahal izango du.

Irakurgailuak



Erabiltzaileek, kontagailuko datuak emateko, nahitaezkoa dute ezkaratzean jarritako paperean idaztea, uraren telefonora deitzea edo gure webgunera jotzea. Gure langileak eta, orokorrean, biztanleak babesteko, kontagailuko datuak jasotzen dituzten langileek silikonazko eskuzorroak eta aurpegi-babesak jantziko dituzte.

Bateria-kontagailuak: normal irakurriko dira.

Etxebizitza barruan dauden kontagailuetako datuak jasotzeko honela jokatu dugu:

1. Atari guztietan oharrak jarriko ditugu.
2. Oharrean datuak jarri ez dituzten etxeetan, zedula ate azpian utziko dugu.

Azpikontatatu daiteke.

Kontrol eta Zaintza Zentroa

Telelana.

Beste mantentze-lan batzuk

- Ofizial finko bana jarriko dugu arro erdi bakoitzeko.
- Desinfektatzeko eta garbitzeko lanak bakarrik egingo dira.
- Arro erdi bakoitzeko EUAn eta HUAN ofizial bera arituko da.

EUA: → astelehena/asteazkena eta ostirala.

HUA: → asteartea/osteguna.

- Beregaina izango da, eta harekin ahalik eta kontaktu gutxien izan behar da.
- NBEa eta desinfektatzeko eta garbitzeko produktuak izan ditzan ziurtatu behar da.

Eginbeharrak gutxitu daitezke.

Azpikontatatu daiteke.

Saneamendu-kamioia

Kamioietako bat ez da erabiliko. Bi gidariek kamioi berean lan egingo dute, zonetako langileen laguntzaren beharrik gabe. Erabat beregainak izango dira eta gainerako langileek haiekin ahalik eta kontaktu gutxien izango dute.



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



Eginbeharrak gutxitu daitezke.

Azpikontratatu daiteke.

Jendeari arreta emateko bulegoak

Jendeari arreta emateko bulegoak aldi baterako itxiko dira. Bertako langileek atea itxita lan egingo dute eta telelanean aritzeko aukera izango dute.

Bulego nagusiak: kontabilitatea, informatika, fakturazioa, merkataritza eta bulego teknikoa

Sail bakoitzean bina talde, gainjarri gabe; telelana eta bulegoko lan presentziala txandakatuko dituzte.

7.G. Horniketa-katearen segimendua

- Ekoizpen-prozesuetarako produktuak hornitzen dituzten enpresekin harremanetan jarraitzea, ohiko eskariak epe barruan bidaltzen jarrai dezaten ziurtatzeko.
- Stock maximoari eustea, maizago berrituz.
- Stocka ez haustea.

7.H. Beste ohar batzuk

Telelanean ari diren langileek, ezustekoren bat gertatzen bada eta lantokira joan behar badute, lantokian jarritako prebentzio-neurriak beteko dituzte eta lana kasu bakoitzean dagokien administrazioekin koordinatuta egingo dute.

Gobernuak lantokiak nahitaez ixteko agintzeak zer egoera ekarriko lukeen ez dugu aintzat hartu. Hori gertatuz gero, Gobernuak jarritako murrizketak bete beharko genituzke.





Gipuzkoako Ur Kantsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



8. Eranskinak

Eranskin hauetan, funtsezkotzat jotako prozesuetako arduradun funtzionalek bildutako txostenak jaso ditugu, horiek oinarritzat hartuta egin baitugu COVID-19 gaixotasunaren eboluzio-hipotesien inguruko Ekintza Plan hau.

ERANSKINAK: Kontingentzia Planak prozesuka

1. eranskina. Kontingentzia Plana: bilketa, hurbilketa eta tratamendua.
2. eranskina. Kontingentzia Plana: sareen ustiaketa eta mantentze-lana
3. eranskina. Kontingentzia Plana: arazketa eta lohiaren kudeaketa.
4. eranskina. Kontingentzia Plana: laborategia.
5. eranskina. Kontingentzia Plana: irakurgailuak.
6. eranskina. Kontingentzia Plana: Kontrol eta Zaintza Zentroa.
7. eranskina. Kontingentzia Plana: beste mantentze-lan batzuk.
8. eranskina. Kontingentzia Plana: saneamendu eta hondakin kamioia.
9. eranskina. Kontingentzia Plana: jendearentzako arreta-bulegoak eta fakturazioa.
10. eranskina. Kontingentzia Plana: administrazioa, kontabilitatea eta finantzak.
11. eranskina. Kontingentzia Plana: informazio-sistemen eta IKT-azpiegituren kudeaketa




1. eranskina.Kontingentzia Plana: bilketa, hurbilketa eta tratamendua

AURKIBIDEA

- 1) Funtsezko prozesuak zehaztea.
- 2) Lehentasuna ez duten beste prozesu batzuk zehaztea.
- 3) Prebentziozko antolaketa-neurriak (Prebentzio Zerbitzuak adierazitakoen osagarriak).
- 4) Dauden eta premiazkoak diren baliabideak eta aukerak.

JOKABIDEAREN HELBURUAK



1.FUNTSEZKO PROZESUAK

- a) Ura biltzea, hurbiltzea, edangarri bihurtzeko tratamendua egitea eta ur edangarria andel nagusietan gordetzea.
- b) Bitarteko horniketa-tarteetan berriz kloratzea, hornitutako biztanle-guneak.
- c) Hondoko hustubideak erabiltzea.

2.LEHENTASUNA EZ DUTEN PROZESUAK

- a) Minizentral hidroelektrikoetan energia elektrikoa sortzea.

3.PREBENTZIOZKO ANTOLAKETA-NEURRIAK

3.1.ERREAKTIBO, lehengai eta/edo antzekoen inguruak

3.1.1.OINARRIZKO eginbeharrak

- a) Hornitzaileen harremanetarako datuak egiaztatzea.
- b) Sistemen funtzionamendu-egoera eta -bermea aztertzea.
- c) Logistika ezartzea, eskariak egitean honako hauek ziurtatzeko:
 - ERRESERBA minimoa, hau da, biltegi erdia.



- Hilabeteko autonomia, gutxienez.

- d) Ekipo elektrogenoetako gasolioarekin c) puntuan bezala jokatzea.
- e) EUAk desinfektatzea:UVren funtzionamendua martxan jartzea.

3.1.2.LEHENTASUNA DUTEN eginbeharrak

- a) Oinarrizko prebentzio-lanak $\leftarrow > \rightleftarrows$ Funtsezko ustiaketa presetan eta EUAetan.
- b) Matxurak kudeatzea.

3.2.Berezko LANGILEEN inguruokoa

- a) Informazioa eta prestakuntza ematea.
- b) Prebenitzeko eta desinfektatzeko bitartekoak edukitzea.
- c) Komunikatzeko kanalak:nagusiki antolaketa-buruen bitartez.
- d) "Talde beregainak" antolatzea eta talde batzuek besteekin ahalik eta kontaktu gutxien izatea.
- e) Bilerarik ez egitea.
- f) Lantegiak kanpotik etortzen direnentzako IXTEA.Hornitzaileak kanpoan.

Bi ofizial-talde sortuko dira eta elkarrekin ez dute kontakturik izango (egoera nola bilakatzen den, aldatu daiteke):

6 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+3) + arduraduna + antolaketa-burua.

5 ofizial dauden lantegiak:bi talde (3+2) + arduraduna + antolaketa-burua.

3 ofizial dauden lantegiak:bi talde (2+1) + arduraduna + antolaketa-burua.

OHIZ KANPOKO egoerarik sortzen ez bada, bi taldeak ez dira gainjarriko,eta ezingo dute elkarrekin eta beste lantegietako langileekin kontaktuan egon (estankotasun maximoa). Hori dela eta, kontuan hartu behar da goizeko txandako langileak zer ordutan irteten diren eta arratsaldeko txandakoak zer ordutan sartzen diren.Talde bakoitzak bere ibilgailua izango du; ibilgailuetan film papera edukiko dute eta ibilgailuak egunero desinfektatuko dira.

Berehala egitekoa:produktu kimikoen hornitzaileei Kontingentzia Planak eskatzea, horniketa ziurtatzeko.

3.3.EGOEREN inguruokoa

3.3.1.3. egoeratik aurrera (5 OF (3+2) eta 4 OF (2+2))

- a. Eginbeharrak moldatzea, eskura zenbat langile dagoen.
- b. Ibilgailuak garbitzea.
- c. LTOek instalazioak sakonago garbitzea eta desinfektatzea.

3.3.2.4. egoeratik aurrera, instalazio batean talde bat falta dela (3 OF (2+1))

- a. Funtsezko lanak, goizeko txandan.
- b. Arratsaldeko txandan lankide bakarra uztea.
- c. Ibilgailuak garbitzea.
- d. LTOek instalazioak sakonago garbitzea eta desinfektatzea.

3.3.3.4. egoeratik aurrera (jaiegunetan bezala = OF 1)



Gipuzkoako Ur Kantsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



- a. Arduraduna etxean.
- b. 2. egoeran jasota ez dauden teknikariak telelanean arituko dira, eta lantokira behar-beharrezkoa bada bakarrik joango dira (adibidez: asteburu eta jaiegunetan bezala).
- c. Koordinazio Teknikoko Ataleko hiru operarioetako bat etxean geratuko da.
- d. Oinarrizko premiak beste arro batzuetako langileekin betetzea.

3.3.4.4. egoera, baina lantegi bateko langile guztiak falta direla (lantegian ez dago ofizialik) (gaixotuak)

- a. Arduraduna etxean.
- b. Oinarrizko premiak beste arro batzuetako langileekin betetzea.
- c. Langileak jaieguna balitz bezala antolatzea.
- d. Bajak beste langile batzuekin betetzea.

4.DAUDEN ETA PREMIAZKOAK DIREN BALIABIDEAK ETA AUKERAK

- a. Giza baliabideak:aurreko ataletan deskribaturikoak eta beste zentro batzuetatik har daitezkeenak;azken horiek ezinbesteko gaitasun eta ezaupideak eduki behar dituzte.
- b. Baliabide materialak:telelanerako eta etxetik prozesuak egoki kontrolatzeko behar diren guztiak.
- c. NBE gehigarriak edukitzea.



2. eranskina.Kontingentzia Plana: sareen ustiaketa eta mantentze-lana

AURKIBIDEA

1. Funtsezko prozesuak zehaztea.
2. Lehentasuna ez duten beste prozesu batzuk zehaztea.
3. Prebentziozko antolaketa-neurriak (Prebentzio Zerbitzuak adierazitakoen osagarriak).
4. Dauden eta premiazkoak diren baliabideak eta aukerak.

1. Funtsezko prozesuak zehaztea

Uraren zikloarekin zerikusia duten prozesu ugari daude, baita zikloaren osagarri diren beste prozesu asko ere. Covid-19 gaixotasunaren ondorioz giza baliabideak aldi batean gutxitzen badira, egoera zehatzei berehala erantzuteko prozesuak dira garrantzitsuenak, zerbitzua ematen jarraitzeko kritikoak izan daitezkeelako. Prozesu horiek dira, funtsean:

a) Horniketako sareetako mantentze-lan zuzentzailea.

Ezin geroratu daitezkeen jarduera kritikoak:

Sare orokorreko hausturez/jarioezarduratzea.

Harguneetako hausturez/jarioezarduratzea.

Presioa/ura falta delako abisuez arduratzea.

Urak kalitate txarra duelako abisuez arduratzea.

Sarean hainbat helbururekin maniobrak egitea; helburuak izan daitezke GIPUZKOAKO

UR KONTSORTZIOARENAK edo hirugarrenenak.

Zerbitzuko altak eta bajak.

Beste batzuk.

Esku hartu behar duten mailak:

- Maila teknikoa. Orokorrean ez da lan presentzialik egin behar, baina batzuetan bai.
Zeregin hori gauzatu dezaketen langile-taldeak ABak dira. Behar izanez gero, Azpiegituren Garapen Sailak lagundu diezaiekete.
- Operarioen maila. Orokorrean lan presentziala egin behar da:
Arduradunak eta ofizialak.

b) Saneamendu-sareetako mantentze-lan zuzentzailea.

Ezin geroratu daitezkeen jarduera kritikoak:

Saneamendu-sareetako esku-hartzeak.

Esku-hartze bereziak eta zoladurak.

Diagnostikoa eta garbiketako (esku-hartzeetan laguntzeko zereginetan).

Iragazketez arduratzea: giroa lehorra denean eta euria egiten duenean.

Harguneetako buxadurez arduratzea, giroa lehorra denean eta euria egiten duenean.

Sare orokorreko buxadurez arduratzea, giroa lehorra denean eta euria egiten duenean.

Hustubideetako buxadurez arduratzea, giroa lehorra denean eta euria egiten duenean.

Hondoratzeez arduratzea, giroa lehorra denean eta euria egiten duenean.

Tapen zarataz arduratzea.

Usainez arduratzea.

Beste batzuk.

Esku hartu behar duten mailak:



- Maila teknikoa. Orokorrean ez da lan presentzialik egin behar, baina batzuetan bai. Zeregin hori gauzatu dezaketen langile-taldeak ABak dira. Behar izanez gero, Azpiegituren Garapen Sailak lagundu diezaiekete.
- Operarioen maila. Orokorrean lan presentziala egin behar da: Arduradunak eta ofizialak.

2. Lehentasuna ez duten beste prozesu batzuk zehaztea

2.1. Prozesu batzuk epe motzean luzatu daitezke; epe ertain eta luzean, ordea, ez, hiritarrentzako kaltegarria izan daitekeelako:

a) Saneamendu-sareak eta hustubideak ohiko moduan garbitzea.

Saneamendu-sareetako esku-hartzeak.

Diagnostikoa eta sektorizazioa.

Diagnostikoa eta garbiketa.

Beste batzuk.

Esku hartu behar duten mailak:

- Maila teknikoa. Orokorrean ez da lan presentzialik egin behar, baina batzuetan bai. Zeregin hori gauzatu dezaketen langile-taldeak ABak dira. Behar izanez gero, Azpiegituren Garapen Sailak lagundu diezaiekete.
